

## **EZKIO-ITSASO / Herriko liburutegian berogailu ekologiko berria ipini behar dute**

**Ezkio-Itsasoko liburutegia Santa Lutzi auzoko kultur etxeke beheko solairuan kokatzen da; honetan, berezko zerbitzuaz gain, beste ekintza batzuk antolatzen dira.**

EZKIO-ITSASO. DV. Ezkio-Itsasoko liburutegia Santa Lutzi auzoko kultur etxeke beheko solairuan kokatuta dago. Hau arratsaldeetan egoten da irekita eta bertan liburuak irakurri eta hauek maileguz hartzeko aukera dute herritarrek, liburutegiko karneta eskuratuz gero.

Jakina da liburutegian eta kokatzen den eraikuntzan berrikuntzak egin behar direla, baina proiektua oraindik aztertzen ari dira Udalakoe, eta hau horrela dela, behin behineko berogailua bertan kokatzea pentsatu dute. Orain arte liburutegian berogailu txiki desberdinak kokatzen ziren gela berotzeko eta bertan bero bero egon ahal izateko. Dena den, eta hau nahikoa ez zela ikusirik, berogailu berria jartzea erabaki dute.

Aukeratutako berogailua oso sistema garbia eta ekologikoa du eta egin beharreko berrikuntzak hasi baino lehen honekin egongo dira bertan. Liburutegiak, berezko zerbitzua eskeintzeaz gain, beste zerbitzu batzuk baditu. Liburutegiko arduradunak antzerkiak eta ipuin kontaketak antolatzen ditu noiz behinka, eta hauek ere gela honetan aurrera eramaten dira. Bestalde, Agata Deunaren bezperan edo Olentzero errondan abesteko kanten entseguak ere bertan egiten dituzte herritarrek.

Berogailu berria jartzearekin batera gela isolatuko dute ere, honekin lortzen den beroa alde egin ez dezan.